

# BESTELAKO XEDAPENAK

## LAN ETA ENPLEGU SAILA

### 1559

*EBAZPENA, 2024ko martxoaren 13koa, Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratzen baita 191/2003 Dekretuan jasotzen diren laguntzen erakunde onuradunen zerrenda (191/2003 Dekretua, uztailaren 29koa, enpresarien elkarteei eta erakunde sindikalei dirulaguntzak ematea arautzen duena haien jarduera-eremuen berezko gaietan hobetzera zuzendutako prestakuntza-planak garatzeko).*

Uztailaren 29ko 191/2003 Dekretuak 12.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, dirulaguntza publikoak emateko ezinbestekoa den publikotasun-printzipioa betetzeak dakartzan ondorioetarako, eta hargatik eragotzi gabe ebazpena berariaz eta banan-banan jakinaraztea, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da xedapen honen babesean emandako laguntzen erakunde onuradunen zerrenda, bai eta emandako dirulaguntzak aldatu zaizkien erakundeen zerrenda ere.

Lan eta Enplegu sailburuaren 2019ko ekainaren 19ko Aginduaren eta 2020ko uztailaren 31ko Aginduaren bidez eta Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuaren 2021eko irailaren 1eko Aginduaren bidez deitu ziren uztailaren 29ko 191/2003 Dekretuan 2019, 2020 eta 2021 urteetarako aurreikusi diren laguntzan.

Hori dela eta, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea 191/2003 Dekretuan jasotzen diren laguntzen erakunde onuradunen zerrenda (191/2003 Dekretua, uztailaren 29koa, enpresarien elkarteei eta erakunde sindikalei dirulaguntzak ematea arautzen duena haien jarduera-eremuen berezko gaietan hobetzera zuzendutako prestakuntza-planak garatzeko). Laguntza horiek 2019, 2020 eta 2021 urteetan deitu ziren Lan eta Enplegu sailburuaren 2019ko ekainaren 19ko Aginduaren eta 2020ko uztailaren 31ko Aginduaren bidez eta Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuaren 2021eko irailaren 1eko Aginduaren bidez (hurrenez hurren), espediente-zenbakia, erakunde onuradunaren izena eta emandako dirulaguntzaren zenbatekoa adierazita. Ebazpen honen eranskinean daude datu horiek.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoaren 13a.

Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendaria,  
ANGEL LAPUENTE MONTORO.

2024ko apirilaren 2a, asteartea

ERANSKINA  
ERAKUNDE ONURADUNAK ETA DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA

## 2019. URTEA

Espedientea	Erakunde eskatzailea	Emandakoa
0006-AF-2019	Manu Robles-Arangiz Institutua Fundazioa	195.583,84
0001-AF-2019-001S	Langile Abertzaleen Batzordeak	90.946,68
0004-AF-2019	C.S. CC.OO. de Euskadi	88.298,40
0005-AF-2019	Unión General de Trabajadores de Euskadi – UGT Euskadi	50.883,88
0002-AF-2019	LSB-USO	9.099,43
0007-AF-2019	Ezker Sindikalaren Konbergentzia – E.S.K.	6.624,71
0008-AF-2019	Confederación Empresarial Vasca «CONFEBASK»	196.508,57
0009-AF-2019	Agrupación de Sociedades Laborales de Euskadi – ASLE	11.751,88
0003-AF-2019	Euskaldendak	6.800,00

## 2020. URTEA

Espedientea	Erakunde eskatzailea	Emandakoa
0009-AF-2020	Manu Robles-Arangiz Institutua Fundazioa	201.501,67
0004-AF-2020	Langile Abertzaleen Batzordeak	126.699,88
0005-AF-2020	C.S. CC.OO. de Euskadi	80.693,44
0003-AF-2020	Unión General de Trabajadores de Euskadi – UGT Euskadi	53.211,05
0002-AF-2020	LSB-USO	9.120,00
0010-AF-2020	Ezker Sindikalaren Konbergentzia – E.S.K.	7.200,00
0007-AF-2020	Confederación Empresarial Vasca «CONFEBASK»	247.387,56
0008-AF-2020	Agrupación de Sociedades Laborales de Euskadi – ASLE	7.413,04
0001-AF-2020	Euskaldendak	6.480,00

## 2021. URTEA

Espedientea	Erakunde eskatzailea	Emandakoa
0010-AF-2021	Manu Robles-Arangiz Institutua Fundazioa	211.097,60
0003-AF-2021	Langile Abertzaleen Batzordeak	101.796,06
0002-AF-2021	C.S. CC.OO. de Euskadi	89.323,20
0004-AF-2021	Unión General de Trabajadores de Euskadi – UGT Euskadi	52.466,47
0007-AF-2021	LSB-USO	9.120,00
0008-AF-2021	Ezker Sindikalaren Konbergentzia – E.S.K.	7.125,16
0005-AF-2021	Confederación Empresarial Vasca «CONFEBASK»	226.795,49
0009-AF-2021	ELBE – Asociación de Recursos Asistenciales de Euskadi	9.549,60
0001-AF-2021	Euskaldendak	6.800,00
0011-AF-2021	KONFEKOOP – Confederación de Cooperativas de Euskadi	1.362,54